

 **160.17.** Eskaera-gutuna

Eukene Sologaistua Almandoz
Formanederto kiroldegiaren zuzendaria
Berria kalea, 1

KIROLDEGIKO INSTALAZIOAK ALDATZEKO ESKABIDEA

Agur t'erdi.

Nik, Amaia Igerategi Zaharrak, Barakaldoko Beurko kaleko 20, 2. ezkerrean bizi eta NAN zk. 18977653H dudanak, honako hau **AZALTZEN DIZUT:**

2005eko azaroaren 15ean, kiroldegia eraiki zen, eta harrezkero ez da inolako instalaziorik berritu, egiaztatu ahal izan dudanez. Hori dela eta, egokia iruditu zait dagoneko oso egoera txarrean dauden hainbat gunetan konponketa- eta eraberritze-lanak egiteko eskatzea.

Arazo nagusiak hauek dira, bertako erabiltzaileon ustez: makinak oso egoera txarrean, matxuratuta edo geldirik, beroa, kiratsa eta espaziorik eza. Hala ere, badaude mantentze-lanez kanpo konpondu beharko liratekeen beste hainbat kontu ere.

Horregatik guztiagatik, hauxe da NIRE ESKAERA: Kiroldegiko teknikariek dagokion azterketa sakona egin dezatela, premiazko konponketak eta eraberritze-lanak gauzatzeko plan bat eratzeko.

Adeitasunez,

Barakaldon, 2015eko otsailaren 17an.



Amaia Igerategi Zaharra

Kiroldegiko bazkide-erabiltzailea